

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 14a / 561. zenbakia

The image displays a handwritten musical score for a piece titled "Berrigara" by "A. Gonzalez Chirilaquer". The score is written on ten staves, organized into three systems of three staves each. The notation includes various musical symbols such as clefs, time signatures, notes, rests, and dynamic markings like "mf" and "p". There are also some handwritten annotations and corrections throughout the score. The title "Berrigara" is written in a stylized, cursive font at the top left of the first staff, and the composer's name "A. Gonzalez Chirilaquer" is written at the top right. The score appears to be a complex piece, possibly for a chamber ensemble or a small orchestra, given the multiple staves and the variety of musical elements.


## BANDAK SANTA ZEZILIA OSPATUKO DU DOMEKAN

'Añoranza' Gonzalez Chirilaqueren lan berria estreinatuko dute

# ARREGI AROZTEGIA



PVCzko  
LEIHOAK



Zatoz gure  
erakusketa handitu  
eta berritura.  
Bidekurutzeta  
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK



SUKALDEAK



ATEAK ETA  
LEIHOAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoak • Mota guztietako arozlanak


Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

*laster*  
**Debagoiena**  
*esku-eskura*

**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

**ATREBENTZIAEZPADA/ Urte sasoi honetan, eguraldi txarreko asteburuetan zer egiten dozu?**



**IZASKUN ZARRAUA** 43 urte      **JOSE CASTRO** 56 urte      **JESUS FRAGO** 65 urte      **ANABEL PEREZ** 33 urte      **AGUSTIN RUEDA** 22 urte      **SEBASTIAN GONZALEZ** 61 urte

Lasai ibiltzia gustatzen jat. Goizian biharbada bueltan bat emoten dot, baiña bestela etxean trankil egoitia mahixau dot. Aukeria askiz gero, zinera be juaten naiz batzutan.

Urte osuan antzera ibiltzen gara gu. Eibar futbol taldeko bazkidia naiz eta hamabostian behin hara juaten naiz. Bergaran lagunekin irtetia gustatzen jat txikito batzuk hartzera.

Gauza gutxi egiten dot. Pasiu, mendira juan perretxiko billa... Euri asko daguegian ezin leike juan, normalian ez gara juaten. Bizikletan be ibiltzen naiz aste bukaeretan.

Ostalaritzan nabil lanian eta nire aste bukaerak ez die askorik aldatzen urte sasoi batetik bestera. Eurixakin ezin leike gauza askorik egin. Zinera, eskapatatxo bat Donostiara...

Normalian neskalaguna-kin juaten naiz, hango zentro komertzial baten arratsaldia pasatzera. Filmen bat ikusi, bolotan jokatu... Holakuak. Lasai ibiltzen gara.

Eguraldi txarra egiten badau, gauza gutxi egin leike: pasiatzea, lagunekin irteten txikito batzuk hartzera... Ez dogu beste munduko ezer egiten; lasai ibiltzen gara sasoi honetan.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK AUTOA, SEMINARIOKO PATIOAN** Aranzadi Ikastolako ikasle bat etorri zitzaigun aurrekoan. Hainbatek autoa Seminarioko patioan aparkatzen duela eta kexatzera etorri zen. Esan zuenez, azken aldian jolastera irteten direnean autoek patioaren zatia kentzen diete, eta ezin izaten dute futboleko horren gustura egin. Esan-lakoa kontuan hartzea nahi du ikasle horrek. /M.B.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK /5	KIROLAK /10	KULTURA /12
<b>Zaharberritzea epaitegian</b>	<b>Erregional mailako taldea</b>	<b>Bandaren emanaldia</b>
Zaharberritze lanak eta ezin- duendako sarrera berria egingo ditu Jaurlaritzak epaitegian.	Lehen erregional mailako futbol taldeak Gazteak hartuko du zapatuan Agorrosin.	Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, 12:30ean, pilotalekuan, Santa Zezilia ospatzeko.

**ASTEKODATUA**

**1.500**

**ERRETIRATUEN GAINKO LIBURUAREN ALE KOPURUA**

*Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002* liburua aurkeztu zuten joan zen egubakoitzean udal-txean. 1.500 ale kaleratu dituzte eta 5 eurotan dago salgai.

**BESTEKE SANA**

**“** Hiri ideala utopia da, azkenean, nahi dugun hiria imajinatzeko aitzakia baino ez da. **”** Neurri batean geure hiria berreraikitzeke gai gara, gai gara, baita ere, berez gogorra, deserosoa eta zaila den ingurune baten bizitzeko, eta aldi berean, gure koartada aurkitzeko gai gara, eta hiri hori eroso, simple eta hurbileko egiteko. (...) Hiria hiri txikiez osatutako eraikina da, beti garatzen dagoena. Hiri guztiak dira posible hiri horren barruan. Hiri modeloa ez da existitzen, eta gainera, ia tortura bat izango litzateke, tirania bat. Ez da guztiondako hiri perfektu hori existitzen. **”** Eta hiriaz berba egiten duenak bere harremanen, zentzuzkoen edo denboren munduaz dihardu.

**JESUS MARI LAZKANO / Pintorea 'Gara' / 03-11-09**

**BERAIEK DIÑO / Ainhoa Agirreazaldegi**



*Nor-Nori-Nork*

**A** skotan sentitu izan dut lanbidez kazetariak direneko inbidia. Kultura, politika, ekonomia, natura... Lehenengo xehe-mehe aletu behar dituzte gaiak, norberak ondo ulertzeraino, edozein artikulutan ondoren jendeari argi azaltzeko. Hau bai egunero-ko ariketa ederra. Egia da ez didatela kazetari guztiek inbidiarik sortzen. Azken urteotako kazetaritza gehiegi urrundu da kazetaritzatik. Demagun, hala ere, inbidia sortzen duten horien lan-esparruaz ari garela. Kazetari hauen lanaren zatirik garrantzitsuena, zer jorratu behar den eta zer ez erabakitzean datza. Nire ustez, kazetaritzaren atalrik interesgarrienetakoa, norberaren (eta komunikabidearen) bizi-ikuspegia finkatzen baita hor.

Nekatuta nago, “euskal gatazka” deritzogun honetan, zein bizi-ikuspegi aldrebesak darabilzkigun ikusita. Esaterako, Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza Sailak atzerritarrei eman nahi dizkien orientabideak direla-eta, izugarrizko zarata etorri zen espainiarren-gandik. Eta gu, leloen moduan, orriak, minutuak eta irudiak eskaini eta eskaini. Aski da. Aski zituen gai horrek bi lerro. Gainontzeko guztiak euskaldunon arteko eraikitze-etzabaidari eskaini behar genizkioke. Adibidez, goizueta-rrak, saratarrak, mauletarrak edo hendaiarrak atzerritarrek direla esateko bezain lotsa gutxi ote du Eusko Jaurlari-

**“Saratarrak edo hendaiarrak atzerritarak direla esateko bezain lotsa gutxi du Jaurlaritzak?”**

tzak? Nafarroa, Lapurdi, Baxe-Nafarroa eta Zuberoa izen orokorregiak ez ote dira? Zer gertatzen da zehazten hasten garenean, izen-abizenak emateraino, euskara baizik ezagutzen ez duten herritarrek aurkitzeraino? Ez da egia denek hezkuntza eredu ezberdinak dituztenik. Jar dezagun bakoitza bere lekuan. Jar gaitzen bakoitza geure lekuan.



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 14**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 15**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- DOMEKA, 16**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 17**  
ZABALA. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 18**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 19**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- EGUENA, 20**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40  
Bergarako Udaltzaingoa. .... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa. .... 943 76 62 46  
Ertzaintza. .... 943 76 53 40  
Osasun etxea. .... 943 76 24 40  
Asepeyo. .... 943 76 16 43  
Pakea. .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua. .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua. .... 943 76 62 23  
Odol emaitzak. .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak. .... 943 76 51 06
- GARRIAK**  
Taxiak. .... 943 76 19 50
- UDALA**  
Bergarako Udaletxea. .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea. .... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa. .... 943 77 91 32  
Igerilekuak. .... 943 76 20 51  
Kultura etxea. .... 943 77 91 58  
Liburutegia. .... 943 77 91 62  
Kiroldegia. .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza. .... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**  
Epaitegia. .... 943 76 14 92  
Erregistroa. .... 943 76 13 15  
Jardun. .... 943 76 36 61  
Idolaz. .... 943 76 65 08  
Erretiratuaren etxea. Bergara. .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuaren elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea. .... 943 76 26 85  
Bedelkar. .... 943 76 04 68  
Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia. .... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza. .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |   |   |
|---|---|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30, 12:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegaraieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:30. |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:15.<br>Zapatuak:<br>19:00.                            | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak:<br>11:00.  |
| <b>Domekak:</b><br>11:30, 13:00.  | <b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30.   |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:30.<br>Zapatuak: 19:00.                                 | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>09:00, 11:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.                                       |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 10:30.   | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.  |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.   | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.  |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.  |

- URTE-MEZAK**  
Santa Marina (Sierbetan)  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1939an jaiotako bazkaria azaroaren 15ean Pertxa elkartearen. Frontoian elkartuko dira 13:00etan. Izenematea 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta), 943 76 14 06 (Maria Jesus Urriategi), 943 76 13 30 (Rosario Garitano) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

**1951N JAIOTAKOEN AFARIA**  
1951koen afaria azaroaren 15ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (0091 1080 94).

**1946AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1946an jaiotako afaria azaroaren 22an Tartufon. Izenematea: 943 76 35 51.

**1945EAN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1945ean jaiotako afaria azaroaren 22an Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan, San Martin plazako bulegoan.

**1981EKOEN BAZKARIA**  
1981ean jaiotako bazkaria azaroaren 22an. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1300 9006 9776).

**1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1934koen bazkaria azaroaren 29an Torrekua jatetxean. Izenematea Torrekua jatetxean (aurrez 12 euro).

**1944AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1944koen afaria azaroaren 29an Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 23 70 (Sanchez) edo 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

**1957AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1957koen afaria azaroaren 29an Zumelagan. Frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Izenematea Intxorta tabernan (aurrez 10 euro).

**1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1933koen bazkaria azaroaren 30ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (aurrez 10 euro) Azpeitxin edo Intxorta tabernan.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Gaztetxean ziren gazteak joanarazi zituzten**

Bergarako gaztetxean entzerrata ziren gazteak joanarazi zituen Ertzaintzak 1993ko azaroaren 15ean. Gaztetxeak eta Elizbarrutiak Komenioko lokalaren jabetzaren inguruan auzia izan zuten eta epaitegiak Elizbarrutiak lokala berreskura zezakeela erabaki zuen.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Arpausuak"**



Erreka oinez zeharkatzeko jarritako harriak.

GORKA ORTEGA

**ASTEKO FILMAK**

**'EL MEXICANO'**

ZUZENDARIA: ROBERT RODRIGUEZ. AKTO-REAK: ANTONIO BANDERAS, SALMA HAYEK.

**HARIA.** *El mariachi* filmaren arrakastari eutsi nahirik, Robert Rodriguez zuzendari mexikarra eta Antonio Banderas berriro ere lankidetzan. Mexiko arriskuan dago Barrilloren planen erruz. Mariachia agertuko da, ohi bezala, gaizkileei aurre egiteko.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**'VERONICA GUERIN'**

ZUZENDARIA: JOEL SCHUMACHER. AKTO-REAK: CATE BLANCHET.

**HARIA.** Aurtengo Zinemaldian aurkeztu zuten 1990eko hamarkadaren erdialdean Irlandan kokatutako filma. Drogaren buru batzuk Dublin kontrolatzeko borrokan ibiliko dira eta Veronica Guerin kazetariak (Cate Blanchet aktorea) ausardiaz egin-gu die aurre...

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 5	<b>3 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguena, 6	<b>24 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA</b> (l/m <sup>2</sup> )	<b>13,9 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	21 °C	3 °C	1,5 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 6	24 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 7	23 °C	6 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 8	21 °C	7 °C	7,9 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 9	19 °C	9 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 10	20 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 11	21 °C	6 °C	4,1 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**Bergara Margoak**

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

**ONDAREA/** Eraikinari, batik bat, fatxadak garbitu eta estalki berria egingo diote. Horrez gain, ezinduendako maldatxoa ere egingo dute sarreraraino

# Epaitegia zaharberritu egingo dute eta ezinduendako sarrera egingo diote

MONIKA BELASTEGI

Eusko Jaurlaritzak epaitegia zaharberritzeko eta sarrera ezinduendako egokitzeko proiektua egin du. Batik bat, eraikina garbitu eta estalkia berri-tuko diote. Eraikinaren aurrealdeko lorategiak ere kenduko dituzte. Udalak begi onez ikusi du Eusko Jaurlaritzaren asmoa.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin du epaitegia zaharberritzeko proiektua, eta helburua da eraikina kanpoko aldetik zaharberritzea eta ezinduendako sarrera egitea.

Zaharberritzeari dagokionez, alde batetik, estalki guztia berri-tuko dute eta estalkiko leihoak aldatu egingo dituzte. Beste aldetik, euri-urendako hodiak eraikinaren kanpoko aldetik jarriko dituzte, jatorrian zeuden moduan. Izan ere, proiektuak jasotzen duenez, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan hainbat obra egin dira epaitegian, batzuk ez oso egokiak, eta ondorioz, aldatu egin da pixka bat epaitegiaren itxura barruko eta kanpoko aldetik.

Kanpoko aldeko aldaketa zaharberritzearen fatxada nagusia inguratzen zuen balkoi antzekoa kendu zuten gertatu zen. Eraikinari jatorrizko itxura eman nahian, elementu hori berreskuratzeko ere aztertu dute. Hala ere, albi batera laga dute ideia, balkoi antzekoa behe solairuko leihoen parera iritsiko litzatekeelako.

Zaharberritzearen barruan fatxadak ere garbituko dituzte: fatxada nagusiaren kasuan, harrizkoa da, eta garbitu egingo dute harrria. Gainerako paretak manposteriazkoak dira eta garbitu eta berrelkartu egingo dute.

Bestalde, kontuan izan behar da, Eusko Jaurlaritzak Bergarako hirigune historikoa monumentu multzo izendatu eta Sailak hartutako kultura ondasun deklaratu duela berriki, horrek fatxadaren babesarekin. Eta epaitegia hirigune historiko horretan kokatuta dago.



Garai batean epaitegi aurrean zegoen balkoi antzekoa berreskuratzea aztertu ondoren, atzera bota dute asmoa: behe solairuko leihoetatik oso gertu gertuko litzateke.

ARTXIBOA

## EZINDUENDAKO SARRERA BERRIA ERE EGINGO DUTE

Epaitegia zaharberritzeaz gain, ezinduendako sarrera bat eraikitzea ere aurreikusten du proiektu

berberak. 1997. urteko Irisgarritasun Legea kontuan izanda, kanpoko aldean ezinduendako maldatxoa ere egingo dute. Maldatxoa Komenio kalean hasi eta

epaitegiaren sarreraraino ailegatu da.

Ezinduendako maldatxoa eta euri-urak jasotzeko sarea egin beharrik itxura berria emango

dio Ariznoa plazari. Izan ere, gaur egun dauden lorategiak kendu egingo dituzte, zorua lautuz. Hala eta guztiz ere, aisi gune izaten jarraituko du, zuhaitz eta eserlekuekin.

## UDALA KONFORME JAURLARITZAREN PROIEKTUAREKIN

Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du dagoeneko proiektua Udalean, eta honek begi onez ikusi du Victoriano Gallastegi alkateak esan duenez. Gainera, lanak nahiko azkar hasiko direla aurreratu du, nahiz eta oraindik Jaurlaritzak lehiaketara atera beharko dituen. Lanok esleitu eta gero, hiru hilabeteren barruan bukatuta egongo direla jasotzen du proiektuak. Bestalde, 281.000 euro inguruko aurrekontua dute epaitegia zaharberritzeko lanok.

## Epaitegia, kartzela eta eskola

XIX. mendearen bigarren erdikoa da epaitegia; eklektizismo garaikoa. Garai hartan Bergara barruti-judizial buru izendatu zuten, eta orduan egin zuten aldi berean epaitegia, kartzela eta ikastetxea izango zen eraikina. Izan ere, XIX. mendean berregituratu egin zuten Justizia Administrazioa eta alkateak kompetentzia jurisdikzionalak izateari laga zion; barruti-judizialak sortu ziren eta horietako bat izan zen Bergara, Lehen Instantziako epaitegiarekin. Hain

justu, epaitegi hori kokatzeko egin zuten eraikina, kartzela eta guzti, eta herriak garai hartan egoitza egokirik ez zuenez, eskola ere han jartzea erabaki zuten.

Eraikin hori egitearekin batera, guztiz aldatu zen Ariznoa plazaren itxura-San Pedro plaza, garai hartan-. 1863an, ospitalea bota zuten, ordurako eraikita zegoelako Casa de Beneficencia -gaur egun Mizpirualde egoitza-, Martina Maiz-ek, Blanc-en alargunak emandako diruarekin.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

**BERGARA**

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

**EDEL**  
TAPIZ DENDA

*Etserako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokiaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Osintxuko adarrari dagokionez, hodia sartzen bukatu dute dagoeneko.

KOLEKTOREA/ San Juango adarrari dagozkion lanak hastear dira

## Geldi daude Bergara-Ibarra arteko kolektorearen lanak

MONIKA BELASTEGI

Hasita egon behar zuten arren, geldi daude kolektorea sartzeko lanak Bideberri-Ibarra tartean. San Antonion errekan sartzekoak ziren hodiak, eta hori da, hain justu, lanak geldi egoteko arrazoia. Errekatik kanporako beste trazaketa bat aztertzen dihardute.

Herriko ur zikinak jasoko dituen kolektorearen hodiak sartzeko lanak uztailean hasi ziren eta hiru fasetan daude banatuta. Fase

bakoitza herriaren tarte bati dagokio, eta enpresa ezberdinekin behar dituzten arren, aldi berean egitekoak ziren. Hala ere, hirugarren tarteko lanak, Bideberri-Ibarri dagozkionak, ez dira oraindik hasi. Izan ere, trazaketaren puntu batean, San Antonion, errekan sartzekoak ziren hodiak, eta errekatik kanporako beste trazaketa bat aztertzen dihardute.

Gainerako bi tarteak martxan daude. Lehenengoa Mekoalde-San Lorenzo industrialdea da, eta horren barruan Osintxuko adarra ere sartzen da. Tarte

horren luzera 3,10 kilometrokoa da eta Altuna y Uria SA enpresak dihardu lanok egiten. Osintxuko adarrari dagokionez, bukatu dute hodiak sartzen eta Mekoalde-San Lorenzo industrialdea tartean ere lanak aurrera doaz.

Bigarren tarteak San Lorenzo industrialdea-Bideberri da, eta horren barruan San Juango adarra ere sartzen da. Tartearen luzera 3,95 kilometrokoa da eta enpresa egilea Tecsa. Lanak aurrera doaz, eta San Juango adarrean berehala hasiko dira, Udal iturriek esan dutenez.

## Monumentu izendatu du Jaurlaritzak Eduegi baserria

MONIKA BELASTEGI

Kultura Sailak San Kristobalگو Eduegi baserria monumentu izendatu du. Debagoieneko XVI. mendeko baserriaren erakusgarria da. Izendapenarekin babes berezia jasoko du baserriak eta haren inguruak.

Duela hiru urte eman zion hasiera Jaurlaritzak Eduegi baserria Monumentu izendapenez, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari. Hasiera emate hark babestu beharreko ondasunen mugaketa eta deskripzioa baino ez zuen egin. Orain, espedientea osatzeko, dagokion babes-araubidea zehaztu dute, baita dokumentua jendaurrean jarri ere, inork alegaziorik balu, egiteko.

Eduegi baserria Debagoieneko XVI. mendeko baserri-dolaren bilakaeraren eta egokitzapenaren adibide bikaina da, Jaurlaritzako adituen ustez. Gotiko-pizkunde garaiko baserri mota da, eta Debagoienean eta Urola Garaian baino ez da ematen. Ezaugarri

nabarmenetako bat da, besteak beste, baserria mendi-hegalaren erdialdean kokatuta egonik horrek dakarren desoreka erdi-sotoa egiteko erabili izana, eta soto eta biltegi moduan erabili izan da erdi-soto hori. Horren ondorioz, altxaera asimetrikoa da eta aldeko paretak altuera desberdinekoak. Bestalde, Barroko aroan eraikina eraberritu egin zuten, eta arkupedun zatia erantsi zioten baserriari. Horrek, fatxadaren dagoen armariarekin batera, prestutasun dotorea eman zion baserriari eta, gainera, trantsizioko esparru funtzional berria sortu zuen baserriaren kanpoko aldearen eta barruko aldearen artean.

### BABESTUTAKO ERAIKINA

Egindako izendapenak babes berezia ematen dio Eduegi baserriari. Gainera, baserriaz gain, kokatuta dagoen malda ere babestuta geratuko da, Debagoieneko ohiko baserri mota batekoa delako: Upelategidun dolare-baserria, hain justu ere; eta baserri mota hori maldaren erdian egon izan da.



Babes maila dela eta, AHTk ezin izango dio eragin ez baserriari ez haren inguruari.

## Paulo Elgoro, Soto del Real espetxean

M.B.

Aurreko eguaztenean estraditatu zuten Paulo Elgoro gaztea Alemaniatik, eta egunean bertan Soto del Realgo kartzelara eraman zuten. Herrian hainbat mobilizazio egin dituzte Pauloren alde.

Paulo Elgoro estraditatu zutelako jakin eta hainbat mobilizazio egin dituzte herrian haren askatasuna eskatzeko. Irudian, esaterako, eguen iluntzean hainbat lagunek egindako manifestazioa ikus daiteke.

### MADRILGO ESPETXE BATEAN

Eguaztenean estraditatu zuten Paulo Elgoro Alemaniatik. Hegazkinez Barajasko aireportura eraman zuten eta handik Madrilgo Soto del Realeko espetxera.

Urtarrilean atxilotu zuten Elgoro Nurenberg-en eta handik gutxira egin zuten Espainiako agintariek estradizio eskaera. Nurenbergeko epaitegiak eskaria onartu eta Alemaniako Auzitegi Konstituzionalean helegitea aurkeztu zuen Elgorok erabakia bertan behera lagatzeko. Hilabeteko gose greba ere egin zuen.



Eguenean manifestazioa egin zuten hainbat lagunek Elgororen askatasuna eskatzeko.

**HIRIGINTZA/** Behe solairua birgaituko dute eta aurrekontua 333.000 euro ingurukoa da

# Arostegi etxean erakusketa aretoa jartzeko proiektua

MONIKA BELASTEGI

Arostegi etxean erakusketa aretoa jartzeko asmoa aurrera doa. Aste honetan eman dio Hirigintza batzordeak oniritzia proiektuari. 333.000 euro inguruko aurrekontua izango dute egoitza birgaitzeko lanek. Datorren urtean martxan izango da erakusketa aretoa.

Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, aste honetan aztertu du Hirigintza batzordeak Arostegi etxeko behe solairua erakusketa areto bihurtzeko Iñaki Berasategi arkitektoak egindako proiektua. Gallastegi alkateak gehitu duenez, batzordeak oniritzia eman dio proiektuari eta orain birgaitze lanak nork egingo dituen erabakitzeko baldintzak prestatuko dituzte. Alkateak gehitu duenez, baldintzak prestatu, behaketara atera eta esleitzea egiten dutenean lanak laster hasiko dira eta datorren urterako martxan egongo da. Aurrekontuari dagokionez, 333.000 euro ingurukoa dela azaldu du.



ARTXIBOA

Datorren urterako martxan egongo da erakusketa areto berria.

## UZ EROSI ZUEN UDALAK LOKALA

Uzko urtarrean erosi zion Udalak Kutzari Arostegiko etxearen behe solairua eta sotoa. Erosketari hori helburu jakin batekin egin zuen Udalak: erakusketarako birgaitzeko. Behe solairuak 300 metro koadro inguru ditu eta sotoak, 70 metro koadro inguru, eta behe solairua da, hain justu

erakusketarako erabiliko dute-na. Hala ere, helburu nagusia erakusketak diren arren, hitzaldietarako ere erabiliko dute.

Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, erakusketa

areto berria antolatzeko orduan, herriko artistekin hainbat batzar egin dituzte, eurak direlako erakusketarako beharrak zein diren bertatik bertara ezagutzen dituztenak.

## LABUR

### Bi herritarrek istripua izan zuten aurreko asteburuan Jabi Lazkano ikustera zihoazela

Bi lagunak autoz zihoazen Alcazar de San Juanerantz, auto batek jo eta istripua izan zutenean. Getafe inguruan izan zen eta autoak emandako birak direla-eta gorputza hainbat tokitan kolpatuta eta lepokoarekin daude biak. Horren ondorioz, errehabilitazioa egin beharra dute eta bajaran daude.

Istripua azaroaren lehen izan zen, eta ondorioz ezin izan zuten Jabi Lazkano bisitatzera joan. Hori horrela, espetxera deitu zuten arren, funtzionarioek ez zioten Lazkanori gertatutakoaren berri eman.

### Txirbil harroketa bidezko mekanizazio ikastaroa antolatu du Miguel Altunak

Astelehenean bukatuko da Miguel Altuna institutuak antolatu duen txirbil harroketa bidezko mekanizazio ikastaroan izena emateko epea. Doan izango da eta langabeei zuzenduta dago. Honekin laugarren urtea da Lanbide Heziketako zentroak halako ikastaroa antolatzen duena, betiere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Ikastaroak 695 ordu izango ditu: 100 teorikoak izango dira, eta 595 praktikoak. Praktikako ordu horiei dagokionez, hainbat eskolotako tailerretan egingo dituzte eta 200en bat, inguruko lantegietan. Horrekin batera, ikastaroaren lehen atalean fresatzeko makina eta tornua zer diren ikasiko dute izena ematen dutenek, eta ikastaroaren bigarren atalean, berriz, zenbakizko kontrola. Ikastaroa doan da, eta izena emateko baldintza bakarra da langabea izatea.

### Jose Luis Feo bergararrak irabazi du Pol-Pol taldeak antolatutako argazki rallya

Jose Luis Feo bergararrak irabazi du Pol-Pol argazki taldeak urriaren 26an antolatutako argazki rallya. Bigarren saria Zumaiako Luis Llavorik jasoko du; hirugarrena, Bergarako Jose Ignacio Millanek; herriko onenaren saria, Jorge Murgiondok eta gazte saria, berriz, Naiara Canterorendako izango da.

Rally-an 34 lagunek hartu zuten parte; horietako 13 Bergarakoak. Gaiak honakoak izan ziren: udazkena, errubera, mugimendua, horia eta urdina eta beste bi gai libre. Epaimahaiari dagokionez, hauek osatu dute: Jose Luis Martinezek (Eibar argazki aldea), Asier Garinek (Pol-Pol argazki taldea) eta Bixente Eizaetxeberriak (Eibar argazki taldea).

Sari banaketa gaur, egubakoitza, izango da, 20:00etan, Pol-Pol taldeak Zabalotegin duen egoitzan.

# winterthur

Aseguruak:  
Automobila  
Istripuak  
Etxebizitza  
Komertzioa  
Erretiratze planak  
Pentsio planak  
Osasuna  
Bizitza

Segurari Agentzia CB  
Zurradero kalea 6 B  
Tel./Faxa: 943 76 17 40  
20570 Bergara



# ARRANO Taberna

Kruz Gallastegi 5 • Tel. 943 76 02 54




### VOLKSWAGEN TOURAN berria:

- Sei aire-zaku, ABS, EDS, TCS, ESP
- Aire girotua, zazpi eserleku, xenona, nabigazioa
- TDi berriak; 105 eta 130 ZP
- Sei martxa

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 BERGARA Tel.: 943 76 12 50

Zero kilometroko autoen kopuru mugatuak: IBIZA, CORDOBA, FABIA, POLO,... ZURE ZAIN DAUDE!



# ARAMBURU H O R T Z K L I N I K A


- Odontologia orokorra
- Protesiak
- Inplanteak
- Endodontzia
- Ortodontzia
- Kirurgia
- Estetika

Telesforo Aranzadi 1, behea.  
943 76 02 46. Bergara



## TXAPLIGU TALDEKOAK SUKALDARI LANETAN

**J**arduneko Txapligu taldean dabilen neska-mutikoek sukaldaritza tailerra egin zuten aurreko zapatuan. Hainbat talde osatu zituzten eta, Donostiako Alde Zaharreko pintxoei kompetentzia eginez, oso pintxo originalak eta gozoak prestatu zituzten. Zapatuetan eta domeketan Arrizuriagan elkartzen dira Txapligu taldekoak (9-11 urte bitarteko neska-mutikoak), askotariko ekintzak egiteko. Txapligu taldeko kide izateko Jarduneko bulegoetan txartela atera besterik ez dago.



## SAN MARTINEKOAK BASERRI ESKOLAN

**S**an Martin ikastetxeko lehen eta bigarren mailetako ikasleak Bizkaiko Ajangiz herrian izan dira azaroaren 5etik 7ra bitartean. Bertako Lurraska baserri eskolan egin dute egonaldia eta, besteak beste, baratza landu, animaliak zaindu, zaldian ibili, gazta, ogia eta errokillak egin, eta beste hainbat ekintzarekin ederki asko pasatu dute. Eguraldia lagun izan dute eta hiru egun zoragarri igaro dituzte lagunartean.

## ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

## Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

## Dixula BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76. 44 95

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA



MINGAINARITIRAKA



Laida Zubia

UDAL AGIRITEGIKO LANGILEA

Bibliotekonomiako diplomatura eta Dokumentazioko lizentziatura eskuratu zituen Laidak Salamancan, eta urtebete darama Udal Agiritegian lanean. Aurretik, Leonardo Da Vinci programari esker, Pariseko Icomos dokumentazio etxean ibili zen.

**Nondik datorkizu dokumentu zaharrekiko zaletasuna?**  
Liburuekin zerikusia zuen zerbait ikasi nahi nuen, eta, egia esateko, ondo ezagutzen ez nuen zerbaitetan hasi nintzen.

**Artxiboko lan gustukoena?**  
Osoko bilkuren akten hustuketa egiten dut, jendeari informazio topatzea errazteko. Orain, 1936. urte inguruko aktekin nabil eta benetan gauza interesgarriak agertzen dira.

**Zeren bila hurbiltzen da jendea artxibora?**  
Arduradunek hobeto erantzungo lukete, baina genealogiako gauzak kontsultatzera, argazkien bila... Horrelako gauzak.

**Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**  
Atsedean hartzea, irakurtzea, paseatzea, zinemara joatea...

**Urtaro gustukoena?**  
Uda, oporregatik eta berandu iluntzen duelako.

**Parrandazalea zara? Parrandarako toki bat?**  
Noizbehinka egiten dut. Salamanca oso ondo dago horretarako.

**Mutil batengan zertan ohartzeko zara lehenbizi?**  
Izaeran, ea jatorra den.

**Gustuko kirol bat?**  
Step egitea eta bizikletan ibiltzea gustatzen zait.

**Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?**  
Juan Salvador Gaviota (Richard Bach)/Amelie/Morcheeva.

**Telebistako programa bat?**  
Telebista gutxi ikusten dut. Los Simpsons oso ondo dago.

**Gustuko janari eta edari bana?**  
Barazkiak orokorrean eta edateko ura edo ardo beltza.

**Besteengan gehien estimatzen duzuna?**  
Zintotasuna.

**Zure bertute bat? Eta akats bat?**  
Bertuteak besteek esan behar; akatsa, batzuetan lotsatia naizela.

**Zerekin egiten duzu barre? Eta negar?**  
Eguneroko gauza txikiekin; gutxitan egiten dut negar.

**Loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?**  
Etxea, autoa... erosi eta bidaiatu. Polinesiara joango nintzateke gustura, egun batzuk lasai egotera.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

TXUS MANZANO ETA AINTZANE SASIETA

MADRILEN BIZI DIRA 1990ETIK / KILIKA ENPRESAN EGITEN DUTE LAN

“Lan esparru berriak topatzeko Madrileran lanera etortzea erronka izan zen”

EDU MENDIBIL

Hainbat urtez Bergarako Kilika dendan lanean jardun ondoren, Madrilen lan egiteko aukera sortu zitzaion Manzano anaiei. Txus Manzanok gogoratzen duenez, Renault etxeak Madrilen duen egoitzetako bat dekoratzekeo deitutako lehiaketa irabazi zuten 1989. urtearen inguruan: “Bi urteko proiektua izan zen eta handik aurrera Telefonicarekin ere hasi ginen lanean. Nazioarteko azoketan Telefonicak jartzen zituen stand-en ardura eman ziguten eta negozioa hazten hasi zen pixkanaka-pixkanaka”.

Madrilen, Kilikak nagusiki bi lan esparru ditu gaur: eraikinen barruko arkitektura eta marketina. Egoitza Madrilo Jorge Juan kalean daukate eta 30 lagun dabilta bertan lanean. Txusekin batera Manuel eta Javier bere anaiek eta Aintzane emazteak egiten dute lan. Txusek zera adierazi digu: “Gure sektorean lana hemen dago, multi-

*“Ondo hartzen zaituen hiria da Madril; hala ere, gogorra eta estresagarria ere bada”*

nazionalak eta korporazio garrantzitsuenak Madrilen daudelako. Esate baterako, Telefonica Movistar denden diseinua landu dugu, Te Habla enpresarekin ere bagabiltza... Euskal Herrian ez genuke izango horrenbeste merkatu-rik. Egia da konpententzia ikaragarria dela, baina erronka izan da guretako. Enpresa bizirik dago, edozein enpresak izan ditzakeen gorabeherekin, jakina. Azken baten, enpresetan gastu murrizketak badira, marketin eta bestelakoetan egiten dituzte eta horrek guregan eragin zuzena dauka”. Zinerako ere hainbat lan egin dute, baina gauza txikiak izan direla dio

Txusek: “Almodovarren filmetarako hainbat eszenografia lan egin ditugu, baina kolaborazio txikiak izan dira. Izan ere, ez da gure esparrua”.

Aintzane eta Txusek bi alaba daukate, Nerea eta Ainhoa. La Moralejatik gertu bizi dira, Encinar de los Reyesen. Txusek oso gustuko du Madril: “Oso hiri irekia da Madril, ondo hartzen zaituen hiria da; berehala sentitzen zara madrildar. Hala ere, hiri gogorra eta estresagarria ere bada, eta kutsadura eta hemengo bizitza erritmoa ez dira bate-re atseginak zenbaitetan. Batzuetan lehortuta bukatzen dugu lan jarduna, nekagarria da”.

Lanetik aparte bizimodu lasaia egiten dutela diosku Txusek: “Bi alabarekin, pentsa, aste bukaeretan-eta, familian lasai egoten gara. Lagunak eta familiakoak ere sarri etortzen zaizkigu bisitan, eta hiriak eskaintzen dituen gauzekin disfrutatzen saiatzen gara. Orain, udazkenean, kultur ikuskizun ugari egoten da eta giro polita dago. Erakargarria da Madril udazkenean eta neguan”.

Gabonetan Bergarara etorriko dira Aintzane eta Txus: “Bergarak asko erakartzen gaitu eta gure alabei ere izugarri gustatzen zaie. Ahal dugunean joaten gara. Udan ere Zarautzen egon ginen. Euskal Herriaren publizitate ona egiten dugu hemen eta guretako gauza ederra da jaioterri-  
ra bueltatzea. Bergara, beharbada, kanpoan bizitzero estimatzen da gehien”.



OGIZUN  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46      Zubillaga 10  
BERGARA              OÑATI  
943 76 45 53        943 78 24 13

Mujika  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeke zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...) mireia alberdi  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA  
(t) 943 76 60 45  
(s) 646 43 34 58  
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3  
20577 ANTZUOLA

FUTBOLA

# Lehen erregional mailako taldeak Gazteak hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen

Lehen zortzi jardunaldietan Bergarak bi partidu irabazi ditu eta biharko partidua erabakigarria da sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko

EDU MENDIBIL

Lehen erregional mailako Bergara futbol taldeak Gazteak taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Andoni Askargortaren mutilek beharrezkoa dute partidua irabaztea sailkapeneko azken postuetan direnekin aldea handitzeko.

Bergara sailkapeneko 12. tokian dago, 7 punturekin. Mahoneroek bi partidu irabazi, bat berdindu eta gainerako bostak galdu egin dituzte. Joan zen zapatuan Seguran galdu zuten, 2-0. Andoni Askargortak zera esan digu: "Azken lau partiduak, lesioak tarteko, galdu egin ditugu eta behera egin dugu. Zapatuan ere ez genuen itxura onik eman Seguran. Lo atera ginen eta 15. minuturako 2-0 ari ginen galtzen. Erre-akzionatu genuerako berandu zen".

## HELBURUA: ESTUASUNIK EZ PASATZEA

Askargorta bigarren urtez ari da erregional mailako taldea zuzentzen. Aurten Gotzon Zabalo du laguntzaile. Sailkapenaren erdialdean egoteko moduko taldea dutela dio Askargortak: "Mailari eustea, ahal bada estuasunik pasatzeke, eta ahal bada preferente mailako taldea hornitzea da gure helburua. Hamasei talde gaude lehian eta erdialdean ibiltzea da



Lehen erregional mailako taldeak denboraldiko hirugarren garaipena lortu nahi du bihar.

gure asmoa". Biharkoa eta dato- rren astekoa partidu klabeak izango dira bergararentzat: "Eibar-ko Gazteak gure atzetik dago sailkapenean, 5 punturekin, eta hurrengo astean azken postuan dagoen Ordiziari egingo diogu

bisita. Partidu erabakigarriak izango dira biak, gora egiteko eta azken postuetan direnekin zuloa handitzeko".

Taldean 25 jokalaririk dira: horietatik 10 gazte taldetik igo dira. Horiez gain, Aimar Leibar erdi-

lari aretxabaletarra eta Iker Robles atezain lekeitiarra dira nobedade nagusiak

## BESTE LAU PARTIDU IPINTZAN

Zapatuan beste bi partidu jokatuko dira Ipintzan: Bergara-San-

to Tomas ohorezko gazte mailan (12:30ean) eta Bergara-Anaitasuna nesken artekoa (17:30ean). Domekan, infantil mailako taldeak Eibar hartuko du 10:00etan eta lehen kadete mailakoak Behobia izango du bisitari 11:30ean.

## Bergarako 157 lagunek amaitu zuten domekan Behobia-Donostia lasterketa

E.M.


Bergarako 157 lagunek amaitu zuten domekan jokatutako Behobia-Donostia lasterketa. Aurten goi-ekitaldiak marka berria ekarri zuen partaidetzari dagokionez: 11.227 korrikalarik eman zuten izena. Herriko atleten kasuan, aurten ere Jon Arantzabal Ezpeleta izan da onena, 100. postuan, ordubete, 11 minutu eta 42 segundoko denborarekin. Roberto Zurro Usabiaga 140. postuan iritsi zen (1:13:01) eta hurrengo bergararrak Javier Garcia Alberdi, 308. postuan (1:16:56), Javier Moreno Castelo (1:17:02, 315. postuan) eta Jabi Ibarra Moñux (1:17:05, 317. postuan) izan ziren.

## IRATXE ARANBURU IRABAZLE

Bestalde, domekako protagonista nagusietako bat Iratxe Aranburu 27 urteko zarauztarra izan zen. Iratxe Aranburu Bergarako

Udaleko Kirol Zerbitzuan dabil lanean urria ezker, Iñaki Ugartebururen ordez, hain zuzen ere. Domekan bigarren aldiz jarraian irabazi zuen Behobia-Donostia lasterketa, 1:13:42 denborarekin. Ia bi minutuan hobetu zuen iaz egindako marka. Aurten Atletico San Sebastian taldean dihardu Iratxek eta kros denboraldia-ri ekingo dio datozen asteotan. Udalean lanean hasi aurretik Mariaren Lagundia Ikastolan heziketa fisikoko irakaslea izan da. Domekan, minutu bat eta 47 segundoko aldea atera zion bigarren izan zen Sara Valderasi.

Fortuna Elkarteko datuen arabera, herriko beste bi emakumek amaitu zuten proba: Amaia Arantzabal Ezpeleta mendizale ezagunak 7.098. postuan (1:49:56) eta Nora Olabide Larrañagak 8.231. tokian (1:55:16). Bergarako guztien sailkapena GOIENKARIAN ikus dezakezue.



Iratxe Aranburu zarauztarra kirol teknikaria da urria ezker.

MENDIA

## Bigarren eskuko mendiko materialaren azoka

Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako azoka txikirako material biltzea azaroaren 20ra arte egingo dute. Bigarren eskuko materiala eraman ahal izango da Pol-Poleko bulegora, aste barruan, 19:00etatik 20:30era.

TXIRRINDULARITZA

## Txirrindulari Elkarteko bazkaria bihar

Bergarako Txirrindulari Elkartek denboraldi amaierako bazkaria egingo du bihar, zapatua, San Lorentzoko Madura elkartearen bazkaria-aren aurretik batzara egingo dute. Bazkaria joan nahi dutenek elkarteko zuzendaritzakoekin harremanetan jarri beharko dute.

ARTXIBOA



Kadete mailako nesken saskibaloia taldea joan zen zapatuko partiduen atarian.

OLAIA MONDRAGON

SASKIBALOA

## Kadete mailako nesken taldeak Santo Tomas Lizeoari irabazi zion

Jokin Perezen taldeak partidu bakarra galdu du lehenbiziko bost jardunaldietan

E.M.

**Kadete mailako nesken saskibaloia taldeak 57-31 irabazi zion zapatuan Santo Tomas Lizeoa taldeari, Labegaraletako kiroldegian. Bergararrak sailkapeneko goialdeko postuetan ditugu.**

Jokin Perezek zuzendutako taldeak lau partidu irabazi eta bakarra galdu du orain arte. Hala ere, Jokin Perezen arabera, zapatuan ez zuten partidu onik jokatu donostiarraren aurka: "Santo Tomas Lizeoa jokalarik bat gutxiagorekin etorri zen eta gure taldeak

motibazio barik jokatu zuen. Jokalariek jarrera aldatu behar dute hurrengo partiduak aurrera ateratzeko". Bergararrak Almen taldearen aurka jokatu dute bihar, zapatua, Eskoriatzan, 16:00etan. Bergararekin berdinduta dago Almen sailkapenean. Bi taldeek partidu bakarra galdu dute orain arte. Biharko partidua erabakigarria izango da, bergararrak onenekin lehia jarraitzerik duten jakiteko.

**HASIERATIK AURRETIK MARKAGAILUAN**  
Santo Tomas Lizeoaren aurkako partiduan etxeko neskek segituan lortu zuten aldea marka-

gailuan. Donostiarrak ez ziren gauza izan ondo defenditzeko eta horren aurrean bergararrak ohi baino erraztasun gehiago izan zituzten saskiratzeak lortzeko. Etxeko partetik Miren Juldainek lortu zituen puntu gehien, 16. Aitziber Azagirrek 13 puntu lortu zituen.

Honako jokalarik hauek osatzen dute kadete mailako taldea: Sara Ortigosa, Usue Arantzabal, Teresa Ibañez, Aitziber Azagirre, Sandra Bretaña, Sandra Tabares, Saioa Rajado, Mireia Amasorrain, Lorea Poza, Maria Galarraga, Miren Juldain eta Itsaso Arantzabalek.

## Lau eskubaloi partidu izango dira asteburuan kiroldegian

E.M.

**Bergara KEko lau eskubaloi taldek etxean jokatu dute aste bukaera honetan. Gazte eta kadete mailako mutilen taldeek Arrasateren aurka jokatu dute domeka goizean Labegaraletan.**

Senior mailako mutilen taldeak Egiaren aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan. Bergararrak garrantzi handiko garaipena lortu zuten aurreko astean. Bergararrak sestaoarrei egindako bisitaldian nagusitu ziren, 24-25. Edu Orgaz, Gorka Astaburuaga eta Lander Juaristi hirukoteak zuzendutako taldeak ez du lan erraza izango bihar Donostiako Egi taldearen aurka. Azken bi partiduak jarraian irabazi dituzte mahoneroek, El Pilar taldeari Bergaran (34-12) eta aurreko astean Sestaon. Zapatuan garaipena eskuratuz gero, Bergarak beste urrats bat emango du liga amaieran mailari eusteko. Izan ere, Euskadiko Ligan jarraitzea da etxekoen helburu nagusia aurtengo denboraldirako.

**SENIOR MAILAKO NESKAK ZAPATUAN**

Mutilen partiduen ondoren senior mailako nesken txanda izango da. Bergararrak zarautzarren aurka neurtuko dituzte indarrak, 19:45ean. Joan zen astean 26-14 galdu zuten mahoneroek Urdaibai taldearen aurka. Josu Zeziagaren taldeak Urdaibaren aurka erakutsitako jokoa hobetu behar du Zarautzen aurka puntuak etxean geratzeko.

**DERBI BIKOITZA DOMEKAN**

Domekan beste bi partidu izango dira Labegaraletan: kadete mailako mutilen taldeak Arrasate hartuko du 10:30ean eta gazte mailako mutilen taldeak ere Arrasateren aurka jokatu du, 12:15ean hasita. Arrasateren aurkako derbi bikoitza, beraz, domekan kiroldegian.

Gazte mailako taldea sendo dabil aurtengo denboraldian eta joan zen zapatuan erraz irabazi zion Tolosari, 25-35. Kadete mailako mutilen taldeak, berriz, oraindik ez dio hartu puntua ligari eta azken jardunaldian Zarautzen galdu zuen, 28-18. Xabier Lijoren mutilek derrigorrezkoa dute garaipena lortzea.



Kadete mailako mutilen taldeak Arrasateren aurka jokatu du domekan.

OLAIA MONDRAGON

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### PARTIDUAK

**ZAPATUAN, KANPOAN**

- 09:30: Agirrebeña-Canalejas. Pirulotarrak
- 10:30: Mongatxurak-Pirulotat. Agirrebeña
- 16:00: Toten Añiketari-K. Piperrak. Teatekh
- 17:00: Torrekua-Teatekh. PDS
- 18:00: PDS-De Resaka. A Ze Flaxa
- 19:00: Fac-A Ze Flaxa. De Resaka

**DOMEKAN, KANPOAN**

- 09:30: Santana-Txipiron. Errotagain
- 10:30: Errotagain-Vervenir. Txipiron
- 16:00: TMT-Bederreta. Egurre
- 17:00: Pagomendi-Egurre. TMT

**DOMEKAN, BARRUAN**

- 16:00: Cosa Nostra-SDNT. Fit automocion
- 17:00: Fit automocion-Irubi. Dedo Pafarru
- 18:00: Argandolas-Dedo Pafarru. De Resaka
- 19:00: Agirrebeña-De Resaka. Torpedo Mus.
- 20:00: Artusamak-Torpedo. Agirrebeña



PILOTA

### Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako hiru partidu gaur Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako hiru partidu izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Bigarren kadete mailako bikoteak Andazperen aurka jokatu du; bigarren gazte mailan, Bergara eta Gazte Lekuko pilotariak izango dira aurrez aurre eta azkenik, bigarren senior mailako bikoteak San Esteban hartuko du. Aurreko astean 2. kadete mailakoek Ikas Kirolari irabazi zioten (22-21) eta 2. gazte mailakoek Zarautzi (17-22)

MENDIA

### Pol-Poleko beteranok denboraldiko azken irteera egingo dute domekan, Karrantzara

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranok denboraldiko azken irteera egingo dute domekan, azaroaren 16an. Egun osoko irteera egingo dute Karrantzara eta herriko mendizaleei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi diete. Txartelak Pol-Polen eskura daitezke. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.



Udal Pilotalekuan dagoen akustika hobetzeko teloi antzekoa jarriko dute bandaren buelta guztian eta lurrean moketa.

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren 'Añoranza' obra berria estreinatuko dute

## Bandaren emanaldia etzi, Santa Zezilia ospatzeko

MONIKA BELASTEGI

Etzi, domeka, kontzertua egingo du Udal Musika Bandak Santa Zezilia ospatzeko. 12:30ean izango da, pilotalekuan. Egingo dituzten lanen artean, Alfredo Gz. Chirlaqueren *Añoranza* obra estreinatuko dute.

Santa Zezilia hilaren 22an den arren, Udal Musika Bandak etzi, domeka, egingo du emanaldia musikarien eguna ospatzeko. Dagoeneko hasi dira Gabonetako kontzertua prestatzen, eta entseguetan ez atzeratzeko egingo dute domekan Santa Zezilia eguneko kontzertua.

Ospakizun ekitaldiak 09:30ean hasiko dira. Ordu horretan meza egongo da San Pedro parrokian. 10:30ean, berriz, kalejira egingo dute Udal Musika Bandako kideek, eta 12:30ean, kontzertua. Kontzertuaren ondoren, Zumelaga jatetxera joango dira bazkaltzera. Kontzertuari dagokionez, bost lan egingo ditu Udal Musika Bandak: A. Gz. Chirlaqueren *Añoranza*, pasodoblea; M. Gz. Bastidaren *El metrónomo de Maelzel*; Bizet-en *L'Arlésienne*, minuettoa; P. Appermont-en *Gulliver's travel*; eta Naohiro Iwai-ren *Frank Sinatra hits medley*.

### SOINUA HOBETZEKO ALDAKETAK

Bandaren emanaldiak, batik bat, Udal Pilotalekuan izaten dira; dena den, hori ez da halako emanaldietarako tokirik egokiena, erresonantzia handia du-eta. Gainera, hainbat herritar kexatu izan da. Hori horrela, eta herrian emanaldi-areto egoki bat egon arte, hobekuntza txiki batzuk egingo dituzte pilotalekuan, akustika gehiago zaintzeko: teloi antzekoa jarriko dute bandaren buelta guztian eta lurrean moketa. Horrekin erresonantzia txikitu nahi dute.

Horrez gain, entzuleria gustura egoteko eta Udal Musika Bandak obra bat jotzen diharduen bitartean zaratak ekiditeko, sarrerako atea itxita egongo da. Hori horrela, obra batetik besterako tartean bakarrik zabalduko dituzte ateak, jendea sar edo irten dadin.



ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE  
BANDAKO ZUZENDARIA

"Gure ama zenari eskainita dago 'Añoranza' lana"

Zure obra berria estreinatuko duzue domekan.

Bai. *Añoranza* du izena, eta ama zenari eskainita dago. Duela urte asko hil zen eta beti nahi izan diot zerbait eskaini. Amari pasodobleak asko gustatzen zitzaizkion, eta obra hari eskaintzekotan, ba, beste musika estilo bat aukeratu beharrean pasodoblea aukeratu dut. San Martin aldera hasi nintzen obra lantzen, eta Santa Zezilia dela aprobetxatuz, orain estreinatuko dugu. Gainera, emanaldi hori *Añoranza*-rekin hasiko dugu, eta horren ondoren, amari gehien gustatzen zitzaion obretako batekin jarraituko dugu: gure aitak konposatutako *El metrónomo de Maelzel*.

Nolako da obra?

Bi zati ditu: lehenengoa, ohiko pasodoble andaluzar da, eta izaera nahiko nostalgikoa, malenkoniatsua du; bigarrenak izaera malenkoniatsu horri eutsi egiten dio, eta pasodoblearen forma klasikoagoa dauka.

Beste lanik konposatzen diharduzu?

Bai. Badut bat esku artean, luzeagoa, baina gauza bat dela, bestea dela, oraindik ez dut osatu. Bergararen gaineko lana da: txikia nintzenetik, urtetan barrena, nola ikusi izan dudana eta gaur egun ere nola ikusten dudana herria eta izandako bizipenak.

## Emakumea oinarri Amnesty Internationalen erakusketan

MONIKA BELASTEGI

Amnesty Internationalek argazki erakusketan irekiko du astelehenean kultura etxean. Erakusketaren gaia emakumea da; emakumearen egoera du oinarri, eta abenduaren 1era arte egongo da ikusgai.

Giza eskubideak, emakumeen eskubidea izenburua du Amnesty Internationalek astelehenean zabalduko duen erakusketak. Zaragozako Amnesty International taldeak prestatutako erakusketak da, eta Gipuzkoako hainbat herritan barrena ibiliko da.

Argazkiek osatutako erakusketak da, eta haien lagungarri informazio panelak ere egongo dira. Guztira 20 argazki egongo dira, eta hainbat herrialdetako emakumeak jasotzen dituzte; izan ere, helburua da emakumezkoen munduan bizi duten egoera erakustea. Besteak beste, honako izenburua duten argazkiak ikusi ahal izango dira: *Emakume tor-*

*turatuak, Etxean tortura jasaten duten emakumeak, Gehiegikeriak erlijioaren izenean eta Emakume ekintzaileak*. Argazkiok erakundeko kideek ateratakoak dira, eta estetikan hainbeste erreparatu barik, irudiaren esanahiak du garrantzia.

Erakusketak astelehenean, azaroaren 17an, zabalduko dute eta abenduaren 1era arte egongo da zabalik. Ordutegia: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**ERAKUSKETAREKIN BATERA, HITZALDIA**  
Erakusketarekin batera gaiaren gaineko hitzaldia ere egingo dute, azaroaren 26an, 19:00etan, kultura etxean. Hizlaria Amnesty International erakundeko ordezkari Arantza Lekuona izango da. Erakusketaren gaineko hitzaldiaz gain, erakundearen gainean ere hitz egingo dute, eta sortu nahi duten Emakume Sailaren berri ere emango dute.



Irudian Afganistango emakumeak manifestazioan.

## Donostiako Arala abesbatza bihar Mariaren Lagundian

MONIKA BELASTEGI

Udazken Kulturalaren barruan, Donostiako Arala abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 20:00etan, Mariaren Lagundiko elizan. Antzinako musika garatzea da taldearen helburuetako bat.

Arala taldea hainbat korutako jendea elkartuz sortutako abesbatza da. Gainera, sortu berria da, eta bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan egingo duena taldearen lehenengo kontzertua izango da.

Taldearen helburuetako bat da antzinako musika garatzea, orduko musika berreskuratuta eta estilo propioa emanda. Batik bat Donostia inguruko jendeak osatzen du abesbatza, baina kideen artean bada arrasatear bat

ere: Anuska Ezkurra, hain justu ere. Ezkurra, gainera, sopranoa da eta bakarlari ere jardungo du kontzertuan.

### VIVALDI ET PURCELL-EN LANAK

Arala abesbatzak egingo duen emanaldiak bi atal izango ditu: lehenengoa, A. Vivaldiren bi lan egingo dituzte: *Nullo mundo pax* eta *O qui colei*; bigarrenengoa, H. Puccelliren beste bi obra abestuko dituzte: *Remember noi, Lord, our offences* eta *Funeral music of Queen Mary*.

Emanaldiaren lehenengo atalean biolinaren eta organoaren laguntza izango du abesbatzak bi obretan. Bigarrenengoa bi lanetan, berriz, tronpetaren, tronboiaren, perkusioaren eta organoaren laguntza izango du. Zuzendari lanetan Arkaitz Mendozak jardungo du.

GUREGAIK/ MAKETA LEHIAKETA

# Maketa gustukoena bozkatzeko aukera

ENEIDA ITURBE

**Euskadi Gazteak Maketa Lehiaketan parte hartu duten taldeen artean hogeitaukeratu ditu. Orain, irabazlea izendatzeko, zure laguntza behar dute. Euren webgunean duzu bozkatzeko aukera.**


Euskadi Gaztea irratia urteak daramatza Maketa Lehiaketa antolatzen eta, hala, musika talde berriei euren burua ezagutzera emateko aukera eskaintzen. Dagoeneko jaso dituzte maketak, eta orain irabazlea aukeratzea tokatzen da. Bi sari emango dituzte: entzuleena eta epaimahaiarena. Bihar, zapatua, hasi eta hila-

ren 22a arte maketa gustukoena-ri botoa emateko aukera duzu.

Epaimahaiak hogeitaukeratu dituzte eta, orain, horien artean Entzuleen saria jasoko duena aukeratzeko botoak jasoko dituzte. Irratiaren webgunean ([www.eitb.com/egaztea](http://www.eitb.com/egaztea)) entzun daitezke maketak eta, ondoren, botoa eman.

**SARI BANAKETA, ABENDUAREN 11N**



Azaroaren 22an Ilaski Serrano esatariak *Topaldi* saio berezia egingo du. Telefono bidezko azkeneko botoak jasoko ditu eta ondoren irabazleak izendatu. Sariak Bilbon banatuko dituzte, Kafe Antzokian, abenduaren 11n, eta han izango dira talde irabazleak.



Euskadi Gaztearen webgunean aukera dezakezu maketa gustukoena.

**IRUDI FANTASTIKOEN MARRAZKI LEHIAKETA**  
Zure buruan imajinatu dituzun izaki arraro horiek marrazteko gauza bazara, Irudi Fantastikoen VIII. Lehiaketara aurkeztu ditzakezu marrazkiak. Lehiaketa Sestaoko gaztelekuak antolatu du eta fikziozko edozein gai duten marrazkiak jasoko dira. Lanak DIN A-4 formatuan eta nahi den teknika erabilita egin beharko dira. Bi kategoria daude: 13 eta 18 urte artekoak eta adin horretatik gorakoak. Abenduaren 31 baino lehen bidali behar dira marrazkiak: Gazteleku La Iberia kalea z/g 49510 / Sestao.

TIRABIRAKA/ izenaxxxxxxxxxxxx



*Eskaintza bereziak gabonak arte !!*

- markaren sortzea
- kartelak
- logotipoak
- egutegiak
- tarjetak
- publizitatea
- oinarritzko papeleria
- argazkien inpresio digitala
- gidaliburu korporatiboa
- katalogoak
- diptikoak
- triptikoak
- menuak

KOH . 943767320  
BARRENKALE 42  
20570 Bergara  
koh@kohdiseinua.com  
www.kohdiseinua.com

Oihana garitano  
Katrin bastarrika

Telefonoak  
665703175  
665737711

## ZAHARRAK BERRI

# Nagusien Gela egitasmoaren barruan, udaberria bitartean edadetuei zuzendutako ikastaroak izango dira UNEDen

EDU MENDIBIL


**I**az egin zuten moduan, UNED ikastetxeak eta San Joxepe elkarteak Nagusien Gela izeneko egitasmoa jarri dute abian. Udaberria bitartean erretiratuei zuzendutako hainbat ikastaro egongo dira.

Nagusien Gelaren helburua zera da: pertsona nagusien kolektiboan kulturarekiko interesa piztea eta, aldi berean, edadetuen bizitza kalitatea hobetzeko urratsak ematea. Abian jarritako ikasturteak hiru fase izango ditu: lehenbizikoa, Filosofiaren Historia eskainiko da UNEDen, abenduren 19ra bitartean. Eskolak egubakoitzero izango dira, 17:00etatik 20:00etara. Bigarren fasean, berriz, Historia eta Zuzenbidea ikasgaiak izango dituzte: Historiakoa urtarrileko eguene-

tan emango da (15ean, 22an eta 29an) eta Zuzenbidekoa otsailaren 5ean, 12an eta 19an. Aurtengo ikasturtearekin bukatzeko, Ekologia eta Tai-Chia iragarri dituzte hirugarren faserako, otsaila eta apirila bitartean, hain zuzen ere.

**ERANTZUN ONA IAZ**

Esan bezala, iaz jarri zuten martxan Nagusien Gela eta aurreko ikasturtean erantzun ona jaso zuen. Ikasle beteranoak eta UNEDeko arduradunak pozik azaldu ziren egindako lanarekin. Bada, aurtun, iaz hasitako lanari jarraipena eman nahi diote antolatzaileek eta horretarako edadetuen interesekoak diren gaiak aukeratu dituzte. Proiektuaren bultzatzaileek ikastaroetan parte hartzeko gonbidapena egin nahi diete erretiratuei. Izenematea San Joxepeko bulegoan egin daiteke. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.



Iaz erantzun ona jaso zuen Nagusien Gela egitasmoak; jende dezentek hartu zuen parte antolatutako ikastaroetan.


## Erretiratuen elkartearen gaineko liburua aurkeztu zuten egubakoitzean

E.M.

Egubakoitzean, *Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002* liburua aurkeztu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Xabier Ibartzabal egilearekin batera, Jose Luis Madrazo Diputazioko ordezkaria, Victoriano Gallastegi alkatea, Imanol Sorondo apaiza (urtetan Bergaran lanean izandakoa) eta Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentea izan ziren liburuaren aurkezpenean, besteak beste. Horiez gain, jende dezentek elkartu zen. Ibartzabalek eta gainerako gonbidatuek bat egin zuten erretiratuen elkarteak herriko bizitzan izan duen garrantzia nabarmentzerakoan.

**HOGETA HAMAR URTEKO IBILBIDEA**

Ibartzabalen liburuan Bergarako erretiratuen elkarteak izan duen ibilbidea jasotzen da; azken 30




ENEIDA ITURBE


Xabier Ibartzabal, aurkeztu berri duen liburua eskuetan duela.

urteotako jardunari gainbegiratu egin dio. Hain zuzen, 1972an Aitonak sortu zeneko garaietatik gaur arteko ibilbidea.


Liburua bost eurotan dago salgai erretiratuen egoitzan eta herriko beste hainbat puntutan. 1.500 ale kaleratu dituzte.

**Lizarrara irteera azaroaren 26an**

San Joxepe elkarteak antolatuta, herriko erretiratuek Lizarrara irteera egingo dute datorren azaroaren 26an. Lehenbizi upategi batzuetara bisita egingo dute eta han hartuko dute aperitibo. Egun horretako programarekin jarraituz, Puyko basilika eta Iratxeko monasteriora joango dira. Egun osoko irteera izango da eta Bergaratik 08:30ean aterako dira, autobus geltokitik. Izenematea azaroaren 21era arte izango da zabalik. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

**JAUJA  
KIROLAK**Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95**Jose M. Martin**pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialErrekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295**GARRAIOAK  
ANDUZU  
TRANSPORTES**BERGARA  
607 349 043**Grua zerbitzua**Zerbitzu publikoa eta  
era guztietako kargak**UREDERRA**  
ITURGINTZAIturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
SalmentaArruriaga 11  
686 943 918**TELEIXA  
BILTEGIAK****Eraikuntza  
materialak**Telleria (Labegarieta)  
BERGARA  
Tf. 943 76 27 93

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Bi atari horiek kale berean daude. Non?

GALDEDEBALDE

- |   |   |   |
|---|---|---|
| <p><b>1.</b><br/>Behobia-Donostia lasterketan Bergaran lan egiten duen emakume bat nagusitu zen. Nor?</p> <p>A/ Amaia Arantzabal.<br/>B/ Rosa Mora.<br/>C/ Iratxe Aranburu.</p> | <p><b>2.</b><br/>Ze izen du Glez. Chirlaquek konposatutako pasodoblea, Bandak estreinatuko duena?</p> <p>A/ Añoranza.<br/>B/ El metronomo de Maelzel.<br/>C/ Meridiano.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zein urtetan sortu zuten "Aitonak" erretiratuen elkarte?</p> <p>A/ 1969an.<br/>B/ 1972an.<br/>C/ 1976an.</p> |
|---|---|---|



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zuzentzat du BERRIGARAK asmatzaileron artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSEFA ARRIETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Josefa! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Lasagabaster zubia / Galde debalde: 1-B, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarki txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Luengo lenteja pardinak

Kiloko poltsa

**1,35 €**

225 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Arantzadi, Azkue eta Aita Donostia 1930a inguruan.

BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Arantzadi (2)

KOLDO PEREIRA

Arantzadik Granadako Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Mineralogia eta Zoologia katedra eskuratu zuen 1895ean, eta urte batzuk bizi izan zen hiri horretan. Geroago, Bartzelonako Botanika Deskriptiboaren katedra ere eskuratu zuen, eta unibertsitate horretako dekanu izan zen 1907ra arte. Urte hartan kargua utzi zuen, ikasleek eragindako istilu batzuen ondorioz. Beste hainbat izendapenen artean, Erromako Antropologia Elkarteko kide urgazle eta Bartzelonako Unibertsitateko Zientzia Fakultateko Antropologia katedraduna izan zen. Kargu hura 1931n erretiratu zen arte eduki zuen. 1922an Frantziara eta Alemaniara bidaiatu zuen Barandiaranekin batera. 1930a bitartean mundu zabaleko elkarte zientifikoek izendapen gehiago jaso zituen.

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko batzordekide izan zen, Espasa entziklopedian kolaboratu zuen Zientzia Naturalen eta Antropologiaren atalean eta, Europako hizkuntza nagusiak ezagutzen zituenez, Humboldt, Frizzi eta Haberlandt-en itzultzaile izan zen.

*1920ko hamarkadan mundu zabaleko elkarte zientifikoek izendapen ugari jaso zituen*

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.

- |                      |                 |
|----------------------|-----------------|
| Era guztietako lanak | Paper pintatuak |
| Moketa eta sintasola | Harea zorrotada |
| Iztuku esponjatua    | Iztuku faltsua  |

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

- Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel. 943 76 39 53

**ARDATZA**  
Brikolajea

- |                    |                         |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini  |
| Horma-armairuak    | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak          | Apalak                  |
| Heldulekuak        | Kaxoiak                 |

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



ELGETA  
**Jon Fajardo**  
Azaroaren 18an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.




BERGARA  
**Josu Diaz**  
Azaroaren 17an, 9 urte.  
Zorionak! Mariñe, Alatz,  
Ibon eta Saioa.



BERGARA  
**Maitane Mujika**  
Azaroaren 13an, 9 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak, bereziki Jone.



BERGARA  
**Idoia Herran**  
Azaroaren 12an, 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Erik Herran**  
Azaroaren 13an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Asier Arriola**  
Azaroaren 13an, 10 urte.  
Zorionak! Etxekoak eta  
Boluko familia.



BERGARA  
**Iker Amutxastegi**  
Azaroaren 19an, 2 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak,  
bereziki, Maider.



BERGARA  
**Irati Albisua**  
Azaroaren 16an, urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoen partez zorionak!



BERGARA  
**Ioritz Piñeiro**  
Azaroaren 8an, urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maitane Juaristi**  
Azaroaren 20an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Garazi Belastegi**  
Azaroaren 16an, 14 urte.  
Zorionak! Zure bihotzeko  
azukre koxkorrak.



BERGARA  
**Irati Olabarria**  
Azaroaren 15an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ELGETA  
**Iune Dosuna**  
Azaroaren 7an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Zorionak, etxekoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jasotzeko ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeko komeni da.



#### ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

**TRIPALDI Enrike** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

#### DIETISTAK

**ALBERDI Mireia** Olanar etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

**LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETxea, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

#### HOMEOPATA

**GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### HORTZ-PROTESIKOAK

**MARTINEZ Begoña** Bidekurutzeta 10. 943 76 39 21

#### MASAILARIAK

**AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

#### MEDIKUNTZA OROKORRA

**OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

#### PODOLOGOAK

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

#### YOGA

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko azaroaren 14a / 178. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Anelkar, bost urtez Hirugarren Munduari elkartasuna adieraziz

ENEIDA ITURBE

Anelkar sortu zen arte, Antzuolan hainbat elkartasun talde zeuden, nor bere aldetik lanean. Duela bost urte beren indarrak elkartzea erabaki zuten beharrezan zeudenei hobeto laguntzeko. Ordutik hona gogotsu ari dira eta kanpaina ugari egin dituzte.

Anelkar, Antzuolako Elkartasun Taldea, 1998ko azaroaren 10ean sortu zen gobernuz kanpoko erakunde bezala. Hiru taldetako kideak elkartu ziren GKE honetan: Brasilerak laguntza bidaltzen zuena, Bosniako gerra zela eta sortutakoa eta Rwandaren aldeko taldea. Bakarka lan egin beharrean, euren indarrak elkartuta zerbitzu hobea burutuko zuten ziurtasunarekin sortu zuten Anelkar.

Ordutik hona Elkartasun Festak, hitzaldiak, erakusketak, bidezko merkataritzako postua, etab. antolatu dituzte eta Hirugarren Munduko zenbait herrialderi lagundu. Brasilgo Canudos lurraldera diru asko bidali dute, han Juan Antonio Lizarralde antzuolarra baitago. Hala ere, ez da laguntza jaso duen herrialde



AINZANE IRIZAR

Anelkarrek kanpaina asko egin ditu Hirugarren Munduko herrialdeetara laguntza bidaltzeko.

bakarra izan. 2000n botikak bidali zituzten Boli Kostara eta 2001ean sorgailua Senegalera. Mozambique, Kongo eta El Salvadorri ere lagundu diete.

2002ko herriko jaietan antolatutako tonbola izan da Anelkar

ren arrakastarik handiena; 6.000 euro baino gehiago lortu zituzten honekin. Gari jotzea izan da euren azken ekintza. Taldearen ekimenean herritar ugari parte hartzen du, soberan erakutsiaz euren sensibilizazioa eta elkartasuna.

### GAINBEGIRATUA ETA ALDAKETAK

Biharko antolatu duten babarrun-janean urteurrena ospatuko du Anelkarrek. Aldaketak egiteko aprobetxatuko dute; adibidez, diruzaina aldatzeko. Kide berriak gustura hartuko dituzte.

## HERRITARREN HITZA / Beñardo Kortabarria · Kazetaria

### Konpon zaitetze!!

Kontua ezaguna da; hortaz arazoaren planteamendua labor doa: Gertu Gae plataformako botoek ez dute ordezkartzarik Antzuolako Udalean. Hautes-kunde ostean, uda aurretik, EAJ-EA eta Gertu Gaeren arteko bileraren batzuk egin eiziren, baina, bistan denez, emaitza on barik.

Horren errudunak egongo dira, dudarik ez, baina orain garrantzitsuena arazoi irteera ematea da. Konponbideak behar dira, eta bizkor, botoeskubidea zuten herritarren ia % 34 (hirutik bat) ezin baitira derrepentean desagertarazi.

Zauria hor dago, eta erabat gaiztotu aurretik itxi egin behar da.

Izan ere, nork nahi du hiru pertsonatik bat konpontzen ez den herri batean bizitzea? Zer gertatuko litzateke batek beste bie hitza ukatuko balie? Eta urteroko Mairuaren Alardean irteten diren etatik herenak ezetz esango baluke? Eta hirutik batek zergarik ordainduko ez balu? Eta horri erantzunez, giroa erabat



“Elkarrekin eseri eta hitz egin dezatela berriro”

eta etorkizunik nahi ez dudalako, uste dut herritar guztion erantzukizuna dela Antzuolako Udalarri eta Gertu Gae platafor-

gaiztotu eta... hitza ukatzen duena bat izan beharrezan bi izango balira? Zer nolako herria egiten ariko ginatke? Nik ez dut horrelako Antzuola batean bizitzerik nahi, eta alde bietakoei botoa emandako gehienok ere ez, seguru nago horrekin.

Horregatik, horrelako herririk eta etorkizunik nahi ez dudalako, uste dut herritar guztion erantzukizuna dela Antzuolako Udalarri eta Gertu Gae platafor-

mari konpon daitezela exijitzea; eta eurena, exijentzia horri, ahalegin berri batekin erantzuna ematea.

Hortaz, elkarrekin eseri daitezela berriro ere, eta hitz egiten has daitezela. Mugak? Niretzako argiak dira: Gertu Gaek ezin die exijitu EAJ-EAri ilegal izatea; azken bi talde horiek, aldiz, behartuta daude bermatzera Antzuolako herritarren % 34ren borondateak udaletxean ahotsa eta botoa izango dituela. Tarte horretan, ilegal izan barik, alegal izanda egin daitezke gauzak nire ustetan. Alde bien borondatean dago gakoa.

## LABUR

### Jostailuen erakusketa egongo da asteburuan

Antzuolako herri ikastetxean jostailuen inguruko hainbat ekintza antolatu dituzte; guztiak ere, jostailuak ongi aukeratzeko. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, jostailuen erakusketa izango da Olaranen 17:00etatik 20:00etara. Haurrak ezin izango dira bakarrik ibili, gurasoek lagunduta joan beharko dute.

Erakusketan informazio orriak eta jostailuak probatzeko aukera eskainiko dira. Helburua guraso zein haurrek jostailuak ongi ezagutzea da, hala erosterakoan umearen adin eta izaeraren arabera ongi aukeratzeko.

Hurrengo asteburuan, hilaren 22 eta 23an, beste erakusketa bat izango da Olaranen. Merkatuan dagoen euskarazko jostailu eta materiala izango dira ikusgai.

### Erretiratuentzat hitzaldia eta gaztaina erre jana

Adinduei zuzenduriko *Afektibitatea eta sexualitatea adin duengan* hitzaldia eta gaztaina erre jana izango dira datorren egunean, hilak 20. Hitzaldia 17:30ean eskainiko da Olaranen. Hau amaitzean gaztaina erre jana izango da Accion Catolican. Azken honetara joateko izena eman beharko da erretiratuetan.

### ‘Euskal pilota’ Medemen filma, Antzuolan

*Euskal pilota*. Larrua herritarren aurka Julio Medemen filma Antzuolan ikusteko aukera izango da hurrengo zapatuan, azaroak 22. Elkarrikerriko du filma herrira eta bi emanaldi izango dira, 18:00etan eta 22:00etan, herri ikastetxean. Sarrerak Altzartan eta Itzar liburu dendan salduko dituzte 3 eurotan.

**IRAKURLIARENTXOKUA**

**ARRISKUTSUA**

Udaletik jakin dugu herri-rako beheko sarrera momentuz ez dela egingo, Diputazioan dirurik ez dutelako. Sarrera hau beti izan da arriskutsua eta istripu asko izan dira; zorionez, orain arte, hildakorik gabe. Baina arriskua areagotzen ari da, arriskua egunetik egunera handitzen doalako. Horregatik ez zaigu onargarria iruditzen urte batzuk pasa behar harko direla aldaketa hori egiteko esatea. Beste gauza batzuetarako badago dirua. Momentuz ez badute egin nahi, arriskua gutxitzeko alternatibak badaude, uste dugu; esaterako semaforoak, lurreko tirak, indikazioak hobetu etab. Dena den, badirudi Udala Diputazioaren aurrean presioa egitearen alde dagoela. Ezker Aurretik eginkizun horretan gure laguntza guztia izango dutela esan nahi diegu.

ANTZUOLAKO EZKER ABERTZALEA

**TOPONIMIA**

**Kristina Pavok lortu du toponimia beka**

ENEIDA ITURBE

Kristina Pavo antzuolarrak eskuratu du Antzuolako toponimia aztertu eta biltzeko ikerketa beka. Udalak deituriko lehiaketara bi aurreproiektu aurkeztu zituzten eta Kristinarena aukeratu du epaimahaiak.

Kristinak ilusioz hartu du berria. Euskal Filologia ikasi eta euskalategi batean irakasle aritu ondoren, beste pauso bat emateko aukera paregabea iruditzen zaio beka hori: "Toponimia gure hizkuntzaren lekukorik zaharrena denez", oso interesgarria iruditzen zaio hori biltzea. Urtebeteko epea eman diote ikerketa egiteko eta horretan buru-belarri aritzeko asmoa dauka.

Bere lana herriko tokien izenak jaso, aztertu, sailkatu eta arautzea izango da. Hala, base-riak, iturriak, mendiak eta beste hainbat lekuren izenak izango ditu aztergai Kristinak.

Lanaren helburua ondare historikoa jaso eta galtzeko arriskua duten izenak gordetzea izango da. Informazioa lortzeko idatziz-



Kristina Pavo filologoa da.

ko dokumentuak aztertuko ditu, baina ahozko iturriak ere erabiliko ditu: zenbait herritar nagusi elkarrizketatuko ditu; izan ere, haiek ezagutzen dute ondoen herriko toponimia zaharra.

**IKERKETAREN JARRAIPENA**

Euskaltzaindiko kide batek zuzenduko du Kristina Pavoren ikerketa. Lanaren segimenduz, berriz, jarraipen batzorde bat arduratuko da.

**KIROLA**

**PARTIDUAK**

**FUTBOLA**

Azaroak 15  
15:30: Antzuola-Urki (2. erregio.)  
Azaroak 16  
12:00: Antzuola-Zarauz (Neskak)

**PILOTA**

Azaroak 15 (Gipuzkoako txapelk.)  
17:00: Olalde-Andazte 2 (eskuz nag.)

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**

Arrate - Antzuola - (2. erreg.)  
Antzuola 1 Ikasberri 2 (Gazteak)  
Antzuola 1-Eibartarrak B 4 (Kadet.)  
Bergara 14 Antzuola 1 (Neskak)

**PILOTA**

Gipuzkoako txapelketa  
Oialde-Mundarruz (kadeteak) . . . 22-20  
Aretxabaleta-Oialde (infant.) . . . 18-10

**Aitor eta Iker Larrea, lehen antzuolarrak Behobia-Donostian**

Aitor eta Iker Larrea anaiek 270. eta 271. postuetan amaitu zuten Behobia-Donostia lasterketa pasa den domekan, hilak 9. Aitor izan zen helmugara iritsi zen lehen antzuolarra eta ordubete hamasei minutu eta hamasei segundo behar izan zituen lasterketa burutzeko, anaiak baino segundo bat gutxiago. Hirugarren herritarra Igor Labaien Olasolo izan zen.

Guztira 17 antzuolar iritsi ziren lasterketako helmugara, 16 gizonetako eta neska bakarra: Leire Larrea. Hark bi orduan bete zuen Behobiatik Donostiarainoko bidea.

**GAZTEAK**

**Udala, gazteen beharrak aztertzen**

E.I.

Antzuolako zenbait gaztek ez dute asteburu arratsaldeak igarotzeko leku egokirik eta kaleko txokoren batean egoten dira lagunekin berriketan. Udalak gazte horien beharren inguruko hausnarketa egingo du, irtenbidea aurkitzeko helburuarekin.

Antzuolako gazteen egoera ikertzeaz Txatxilipurdiko kideak arduratuko dira. Arrasate Euskaldun Dezagun erakundeko haur eta gazte ekintzak egiten dituen taldea da Txatxilipurdi. Hausnarketa bi hilabete egingo da egotea espero du Udalak. Ondoren diagnostikoa egingo dute eta, gero, lanean hasi.

Udalak 12tik 17 urte bitarteko gazteak eta hortik gorakoak bereizten ditu. Lehenengo taldeak lokal edo txoko baten behar handiagoa duela eta nagusiagoek, aldiz, beste aukera batzuk dituztela uste du.

Txatxilipurdiren lana 12-17 urte bitarteko beharrak ezagutzeko izango da, beraz. Ziurrenik, ondoren, horiendako txoko


bat antolatuko dela dio Udalak, "gazte txoko" baten antzekoa.

**AGA-K UDALAREKIN BATZARRA IZAN DU**  
Antzuolako Gazte Asanbladako kideek Udalarekin batzarra izatea eskatu zuten, gazteen inguruko egoera nola dagoen jakiteko. AGAko ordezkari batzuk alkaterekin elkartu ziren eta hark Udalaren asmoak azaldu zizkien.

Udalaren asmoek 18 urtetik gorako gazteak kanpo uzten dituela kritikatu du AGA: "Ematen zaigun aukera bakarra tabernetara edo herritik kanpo joatea da". Gazteagoek egoteko leku baten behar handiagoa dutela uste dute eurek ere, baina nagusiagoak ere herrian geratzea bultzatu behar dela pentsatzen dute.

AGA uda osteko lehen batzarra izan zuen pasa den zapatuan. Orain, sarriago elkartu eta hainbat ekimen martxan jartzeko asmoa dute. Euren helburua eurek gestionaturiko gaztetxea lortzea da.

Udalak AGAekin harremanetan jarraitzeko asmoa duela adierazi dio KONTUOLARI.



**Eguzki auzoko aparkalekua**

Maristen eraikina zegoen lekuan aparkalekua jarri du Udalak. Eguzki auzotik sartzen da aparkalekura eta aste batzuk daramatza irekita. Dena den, oraingoz auto gutxi ikusten dira han.

Toki honetan gizarte etxea eraikitzeko asmoa dago, baina lan horiek 2005eko urtaririlean hasiko dira gutxi gorabehera. Udalak ordu arte lekua aprobetxatzea erabaki du. Aparkalekuaren gainaldean, autobus geltokiaren ondoan, egurrezko horma bat jarri dute, behera inor eror ez dadin ./E.I.

**II Sukaldeko Altzariak**  
**Harizki**  
MUEBLES IGEA  
Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak  
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK  
Jose Gomez Abad  
Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19  
INDUSTRI MANTENIMENDUA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko azaroaren 14a / 162. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Udalaren zerbitzuengatik 2004an %2,5 gehiago ordaintzea proposatu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren astelehenean, hilaren 17an, egingo dute Udalean osoko bilkura. Bertan, besteak beste, datorren urterako ordenantza fiskalak izango dituzte eztabaidagai. 2004ko zergak eta tasak gaurkotzean %2,5eko igoera egitea proposatu dute.

Astelehenean, azaroaren 17an, egingo dute osoko bilkura Udalean zinegotziek eta alkateak. Beste hainbat gairen artean udalzergen igoerari buruzkoa mahai gaineratuko dute.

Urtero egiten dute gora udalzergek eta aurten ere horrela egitea da proposamena. Tasak eta zergak gaurkotzean 2002ko irailetik aurtengo irailera bitartean KPIk izan duen igoera hartuko dute kontuan. Gipuzkoan %2,8 igo da, eta erreferentzia hori kontuan izanda, tasak %2,5 igoko lirarteke Elgetaren kasuan. Iaz igoera %3,5ekoa izan zela ikusita, aurtengo igoera txikiagoa dela esan genezake.

Hala ere, Udaleko zerbitzu guztietan ez da igoera bera aplikatuko datorren urtean. Batzuek



Asteleheneko Udal bilkuran aurkeztuko dute 2004ko zergak igotzeko proposamena.

igoera handiagoa izango dute, beste batzuek, aldiz, txikiagoa, eta egongo dira inolako aldaketarik izango ez duten zerga eta tasa gutxi batzuk ere.

### JARDUERA EKONOMIKOAK

Igoera handiena izan duen zerga jarduera ekonomikoetako dagokiena da, %22, hain zuzen ere. Igoerak, harrigarria badirudi ere, badau-

ka azalpena: zerga hau salmenta handiak dituzten enpresa eta jarduerak baino ez dute ordaindu behar. Lehen, denda eta negozio txikiak ere zerga honi zegokion

*Aurten zergen igoera txikiagoa izango da, iaz %3,5 gehiago ordaindu baitzuten elgetarrek*

diru kopurua ordaintzera behartuta zeuden; orain, ordea, ez dira multzo honetan sartzen. Iaz zergen aldaketa eztabaidatzeko orduan gai honen gainean izan zen desadostasunik.

Urtero bezala gora egiten duen beste zerga bat hilerriaren zerbitzuari dagokiona da. Izan ere, zerbitzu hau defizitarioa da. Iaz 108,18 euro ordaindu behar baziren, aurten 114,18 euro da tarifa.

Bestalde, eraikuntza instalazio eta obren gaineko zergek ez dute inolako aldaketarik izan; iaz bezala %5 izango da.

Behin proposamena eginda, datorren astelehenean udalbatzak azken erabakia hartzea baino ez da falta. Onartuz gero, elgetarrek udal zerbitzuengatik %2,5 gehiago ordainduko dute 2004tik aurrera.

### KULTURA

## Dantza taldean izena emateko epea zabalik

I.A.

Elgetako txikiak euskal dantzak ikasteko eskolak ipiniko dituzte abian urtarrilean. Dantza taldean izena eman nahi dutenek liburutegira jo beharko dute azaroaren 28a baino lehen. Hiru talde izango dira eta bakoitzak egun baten izango ditu klaseak.

Datorren urtarrilean hasiko dira dantza eskolak Elgetan. Bertan izena eman nahi dutenek azaroaren 28ra arteko epea dute

eta horretarako liburutegira joan beharko dute.

Hiru taldetan banatuko dituzte eskolak jaso nahi dituzten umeak. Eskolaurreko lehenengo eta bigarren mailako txikitxoek eguaztenetan izango dituzte klaseak arratsaldeko 16:00etatik 16:30era; eskolaurreko hirugarrenekoek eta lehenengo mailakoek astelehenean 16:00etatik 17:00etara; eta bigarren mailatik gorakoek eguaztenetan 17:30etik 18:30era.



Eskolaurreko txikiak hasita izango dute dantza taldean jarduteko aukera.

### LABUR

## Etxeko traste zaharrak azaroaren 20an jasoko dituzte

Datorren egunean, azaroaren 20an, etxeko traste zaharrak jasotzeko eguna izango da Elgetan. Etxean altzari zein bestelako tamaina handiko traste zaharrak traban edukiz gero eta zaborretara bota nahi izanez gero, ohiko zabor ontzien edo edukiontzien alboan laga behar dira egun horretan 20:00etatik 22:00etara bitartean. Ondoren, Debagoieneko Mankomunitateko zabor-biltzaileak pasako dira trasteak jasotzera, hamabost egunean behin egin ohi duten modura.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

- Txapel/Koldo 22
- J.R. Irazabal/I. Izagirre 10
- A. Arantzabal/A. Telleria 22
- Sesia/Satur 11
- M. Larrea/M. Arkarazo 8
- A. Morales/F. Zenitagoia 22
- M. Arantzeta/J.M. Arantzeta 22
- I. Ugarteburu/Antton 11
- I. Gorostiza/F. Olaortua 6
- Otxoa/M. Elkoro 22

SAILKAPENA

A TALDEA	Puntuak
1. Arantzeta anaiak	49
2. A. Morales/F. Zenitagoia	16
3. M. Larrea/M. Arkarazo	9
4. I. Ugarteburu/Antton	-7
5. E. Zubiaurre/J.M. Zubiaurre	-11
6. Arrota/Epi	-32

B TALDEA	Puntuak
1. A. Arantzabal/A. Telleria	42
2. Koldo/Txapel	32
3. Otxoa/M. Elkoro	4
4. J.R. Irazabal/I. Izagirre	-16
5. Sesia/Satur	-29
6. I. Gorostiza/F. Olaortua	-49

OHARRA

Asteburu honetan pilotari beterranoek atsedena izango dute. Behin eskuetako minak arinduta datorren asteburuan ekingo diote berriz txapelketari. Ligaxkako azken partiduak izango dira horiek eta ondoren, bertan behera geratutako hainbat norgehiagoka jokatu dituzte, hilabeteko azken aste bukaeran, hain zuzen ere. Oraindik zehazteke dago txapelketako hurrengo fasea noiz hasiko den.

KULTURA

# Bertso musikatuaren emanaldia Espaloian

I.A.

**Arantxa Cruz eta Joseba Ramirezen ahotsean bertso ezagunak entzuteko aukera izango da datorren barikuan Espaloian. Musika, diapositibak, esketxak... lagun, ordubetean euskal bertsolaritzaren ondaretik hartutako lanak entzungo ditugu.**

Bertso musikatuaren emanaldia izango da datorren barikuan, azaroaren 21ean, Espaloian, gaueko 22:00etan hasita.

Ordubete inguruko ikuskinak bertsoak ditu oinarri, eta musika, diapositibak, esketxak eta dantzak tartekatuz bertso zaharrak eta berriak entzuteko aukera eskainiko digute emanaldi honetan.

Euskal bertsolaritzaren ondaretik hartutako lanak espaloira gerturatzeko publiko guztia-ri zuzenduko dizkiote modu didaktikoan. Izan ere, ume zein nagusi bertsoak eta euskal kantutak gustuko dituen edozeinendako moduko emanaldia da.

Xenpelar, Xalbador, Bilintx, Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Andoni Egaña eta beste hainbat bertsolarik egindako bertso ezagunak eta kantu herrikoiren bat edo beste ere izango dira ikuskinzunean: *Mendian Gora, Euskaldun Berriaren Balada, Xalbadoren Heriotzean, Banako*, besteak beste.

Arantxa Cruzek eta Joseba Ramirezek jarriko diete ahotso bertsoei eta Joseba Ramirezek berak gitarra joko du. Pianoan Xabier Zabalak jardungo du.



Arantxa Cruzek eta Joseba Ramirezek abestuko dituzte bertsoak.



## Izarreko bihurtzeko zuloak estalita daude dagoeneko

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Saileko mantentze-lanen taldeak joan zen astean Izarreko bihurtzeko konpontzen jardun zuen. Bihurtzekoaren barruko aldean asfalto kapa batzuk bota zituzten zulo handienak estaltzeko. Konponketa hau behin-behineko irtenbidea baino ez da izango. Behin betiko konponketa datorren urtean egiteko asmoa dute, eta proiektua gertu dago./I.A.

LABUR

## Unai Ziarsolo gimnasia monitore berria izango da

Oskar Carrascal Udaleko kirol teknikariak eman ditu orain artean soinketa eskolak Elgetan. Baina haren laneko baja dela eta Unai Ziarsolo ermua-rra arduratuko da sasoiaren egoteko gimnasia eta edade-tuendako gimnasia ikastaro- ez.

Unai Ziarsolo aurrez ere ibilia da Elgetan monitore lanetan, udako kirol kanpai- nan, hain zuzen ere.


Martitzen eta eguaztene- tan egiten dituzte soinketa saioak kiroldegian. Edade- tuek arratsaldean eta sasoiaren egoteko gimnasian dabilta- nek, berriz, iluntzean.

Soinketa egiteko aukeraz gain, Udaleko Kirol Zerbi- tzuak aerobik, tai-chi eta kara- te ikastaroak eskaintzen diz- kie elgetarrei.



**ELGETA AUTOAK**

Berraondokoa z/g ELGETA  
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98



Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

## Patxi Taberna



• Bokata goxoak • Plater konbinatuak  
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

## ERRETRATU ZAHARRA

ANTZUOLA

Mutiko koadri-  
la Maristetan  
1967an

**M**aristetan ikasiak dira hainbat belaunalditako antzuolar asko eta asko. Hala egin zuen argazkian dugun mutiko koadrilak ere. Noizean behin argazkiak egiten zizkieten fraideek, eta umeak gustura jartzen ziren kamera aurrean.

1967ko argazki honetan koadrila bitxia ageri da, adin askotariko mutikoak dira-eta, kaletar zein baserritarrak. Gaztetxoek 8-9 urte izango zituzten garai hartan eta nagusienek 14-15. Hori bai, gehienek oraindik praka motzak erabiltzen zituzten, uda edo negua izan.

Urteek aurrera egiten duten arren zenbait ez zaio aurpegia askorik aldatu. Jesus Kortabarriari, aldiz, zaletasuna da aldatu ez zaiona. Bizikleta ez zeukan saltzeko eta argazkia ateratzeko ere ez zuen bazterrean utzi.

Goian, ezkerretik eskuinera: Jesus Kortabarria, Fernando Lete, Jose Mari Mendizabal, Agustin Arbulu, Angel Muxika, Aitor Zubillaga, Jesus Mari Araiztegi eta Pello Legorburu.



Behekoak, ezkerretik eskumara: Kasimiro Muxika, Koldo Madariaga, Gurutz Madariaga, Pruden Garitano, Asentxio Irizar, Jose Ignacio Madariaga, Juan Cruz Lizarralde eta Valentin Agirre.

Argazkia: Lierni Legorburu

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLA ALDATU DIRENGAUZAK


ANTZUOLA

Uzarraga eta  
Elutze

**L**aurogeiko hamarkadan desagertu zen Elutze baserria eta orain txabola bat dago hura zegoen lekuan. Uzarragako elizak, aldiz, hor segitzen du. Jabeek bertan behera utzi dituztelako edo lurraren mugimendua dela eta, baserri bat baino gehiago behera etorri da Uzarragan. Elutze handia eta zaharra zen, eta baserriaren lehen aipamena 1499koa da. Bi etxebizitza zituen eta lau uretako teilatua.



≈ 1957 Uzarragako eliza eta Elutze baserria. Ingu-ruetan egun baino zuhaitz gutxiago eta zoro gehiago ikusten dira.



2003 Elutze 80ko hamarkadan erori zen; hura zegoen lekuan bi txabola daude egun. Elizak hor segitzen du, baina lur mugimenduek asko kaltetzen dute.



**GAZTELU**  
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**ARRI**

Industri  
hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tel. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.



**GABILONDO**  
INMOBILIARIA  
Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,  
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



**ANTIA**  
HARATEGIA  
Matxiategi 8  
BERGARA



**MUJIKA**  
HARATEGIA  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA

## OSAGAI ONENAK GURE KONTU



**IMAZ**  
HARATEGIA  
Aranerrika 1  
BERGARA

Prestatu, zuk prestatuko  
duzu ondoen,  
baina osagai onenak  
gurean eskuratu  
ahal izango dituzu:  
zure herriko dendetan.



**SAN PEDRO**  
FRUTATEGIA  
San Pedro z/g  
BERGARA



UDAZKENA

**Mirari**  
JANTZIDENDA

NEGUA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

# GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

## ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20  
943 76 11 73  
Erakusketa:  
Bidekurutzeta 38  
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak



## UR kristaldegia

Martoko 1-3  
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak



## AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C  
943 76 53 82  
Tailerra:  
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

## ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26  
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

## UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A  
943 76 54 91  
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, ateak



## J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,  
Angiozar  
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

## GOYSMA

Urteaga 9  
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa

## BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.  
162 p.k.  
943 76 97 31  
F 943 76 97 32

bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria

